

2026an GERTATUTAKOAK ETA GERTATUKO DIRENAK.

Gure Trampek nahastu
digula mundua.
boterea izatea
da bere helburua.

Bonbak hemendik hara
gelditu ezinean.
Tramp bitartean dago
lasai bere etxean.

Reid, Victor ta Christian,
Jeremi ere bai,
ilargira joan dira
pozik eta alai.

Orain arte NASAren
misio onena
aurkituz ilargian
alde ezkutuen.

IAk gaur egun dauka
botere handia
gailu guztietan da
pertsonek erdia.

Bideoak argazkiak
sortzen ditu IAK
ta orain asmatu behar
zein diren egiak.

Ezin dugu sinistu
eiten duen guztia
gustatzen zaiolako
baita ere asmatzia.

Onera izango da
guk geuk pentsatzea
eta ez IARI beti
dena galdetzea.

Bertso txapelketa bat
ospatzen da aurten
bertsolari onenak
hor daude lehiatzen.

Mailen Lujanbiok
irabazi zuen
eta ea aurtengoan
irabazten duen.

Futbolari guztien
kopa inportateena.
Ea zer selekzio
aurten da onena?

Ta errege kopako
finala badator
La Cartuja topera
ez da sartzen inor.

Atleticok zaila du
Reala ikusita
Realak duelako
bultzada polita.

Hemezortzia dela
oso egun polita
nire etxera bueltatu
finala ikusita.